

# Poesia asturiarra

---

KARLOS DEL OLMO

Segituan agertzen den sortatxo honen abiarropa José Luis Argüellesek paratutako *Toma de tierra. Poetas en lengua asturiana. Antología (1975-2010)* liburua da. Lagin honen helburua izan da antologian agertzen diren poeta guztien poema bana euskalitztea, bablez edo asturieraz idatzitako poesia zertain den erakusteko asmoz, azaletik besterik ez bada ere. Denbora hurrenkerari dagokionez, atzekoz aurrera antolatuta dago, hau da, berrienetik zaharrenera. Batez ere poema laburrak agertzen dira sorta honetan, aldizkariko artikulu arrunt baten batez besterko luzerari eustearren. Irakurlea berehala ohartuko denez, bablez idazten duten poeten gai batzuk hurbil-hurbil daude Euskal Herritik.

Seguru asko, poesia asturiarra dugu, aragoieraz idatzirikoarekin batera, Penintsula Iberikoan gutxien ezagutzen dugunetakoa. Eta zergatik ez da halako ezaguna bablez jorratutako literatura? Lurraldearen txikia dugu azalpenetako bat, jakina —ezinezkoa da oso argitalpen sektore sendoa izatea—. Bainan irakurle guztiak berehala aitortzen

dioyen kalitatea baldin badu bene-benetan, ezezagun izate horri beste zio bat bilatu beharrekoak izango gara; hain zuzen ere, sozio-politikoa: bablea ez da koofiziala erkidego autonomoan, bateko; besteko, hango agintari politiko gehienek ez diote atxikimendu handirik erakusten hizkuntzari. Beraz, penintsulako eta Europako literatur sistemetan guztiz periferikoa da (ikusezina eta ezezaguna ez esatearren). Euskal Herrian ezagun samarrak ditugun ezaugarrien jabe da, beraz, hango literatur sistema: bablea ez da ofiziala eta gizartean bazterketa formala jasaten du; bablez idatziriko eredu klasikoak urriak eta ezezagunak dira, are hango idazleentzat eurentzat ere; irakurleek ez dute etxerako edo famili harremanetarako baino ez ei den berbetaz idatziriko literaturaren kontzientzia handirik; idazlea erbestezeratu moduan bizi da berez legokiokeen baina ia existitzen ez den kultur sistema batean —sormenaren berezko zaitasun ikaragarriari zama astun batez emendatuta—. Guztia-rekin ere, egoera tamalgarri hori gorabehera, literatura horri egun darizkion sugarra eta

indarra, aldez edo moldez, soilik uler daitake, hain suertez, asturiarrez idazten duten idazleen gizarte arroztasun, bakardade eta onarpen ezetik.

Alderdi filologikoaren ikuspegitik, ikerle batzuen arabera, igarri-igarria da bablea latin herrikoi berantiarren bilakaera bereizia dela, Asturiasko kostaldetik Leon zeharkatuta Miranda de Douro eta Vimioraino heldu zena, eta ez du inolako mendekotasun genetikorik inguruko inolako erromantzerekin. Beste aditu batzuek asturiera gaztelaniaren dialektotzat jotzen dute —bi erromantze ezberdin izan arren—, gaztelaniak Asturiasko hizkuntzetan sarbide sakona izan duelako; baina bablearen hizkuntz autonomiaren galeria berria izan da erabat, XX. mendea aurre-aurreratuta zegoela: elebitasuna gorabehera, hiztunen arteko mintzaera espontaneoa bablez gauzatzen da. Geografiaren ikuspegitik, mendi mugak eragin zuen XIV. mendean erresuma asturleondarreko Leongo partean gaztelania hastea asturiera ordezkatzen, baina XX. mendeko Gerra Zibilak eragin zuen, batez ere, literatura asturiarra maldan behera agudoago joatea eta ez berpiztea *Surdimientu* mugimendua jaio arte. Beste ikerlari batzuek aldezten dutenaren arabera, ez dago hizkuntza sistema batu eta differentzialik, bable sorta bat baino; alegia, alderdi foniko, gramatikal eta semantikoaren aldetik elkarren ezberdinak diren sistema linguistikoen aniztasun halako bat. Urrunago ere heltzen dira horietako batzuk, aldarrikatzen baitute, hain suertez, gaztelania dela benetako hizkuntza eraginkor bakarra Asturiasen, eta hizkuntz gatzka mimetismoz piztu dela inguruko erkidegoetako imitatuta; halakoentzat, asturierazko literaturan erabiltzen

den hizkera hizkuntza artifizialen ezaugarri guztien jabe da.

UNESCOren arabera, bablea dugu mende honetan desager daitezkeen Europa-ko hizkuntzetako bat. Kanpoko iritzirik ez zuten behar izan, dena dela, intelektual batzuek frankismoaren hondar urteetan Conceyu Bable izeneko kultur elkartea sortzeko. *Surdimientu* mugimendua eta bablezko literaturaren loraldian esku handia izan zuen-eta baltzu horrek, baita musikan eta bestelako kultur adierazpenetan ere. Horren guztiaren ondorioz, Academia de la Llingua Asturiana apailatu zuen Asturiasko Lurralde Kontseiluak 1980.eko abenduan, eta horrek alboko beste ondorio nabarmen bat izan zuen: “bableen teoria” aldezen zuten hizkuntzalariek 1988.ean Amigos de los Bables elkartea abiaraztea, asturieraren normalizazioaren aurka zirenen bilgunea izateko asmoz. Akademiaren barruan, dena dela, hainbat gorabehera eta joera izan dira, zenbateraino eta bablea idazteko arau batuak onartzen ez zituzten idazle batzuek beste arau multzo bati atxikitzeraino. Gainera, Printzerriko Hizkuntza Politikako Bulegoarekin ere harremanak ez dira lar onak izan sortzaile eta intelektual batzuen alderditik. 1987.ean Villamayor herrian lehenengo aldiz elkartu zen Xunta d’Escrítores Asturianos erakundea, eta hartan belaunaldien arteko tentsioak gorabehera, gaur arte heldu den labealdi berriko egileen-tzako harroinak jarri zituzten. Dena dela, ez da ahaztu behar mugimendu, arautze eta enparauak gorabehera, bablez idazten zuten egileak izan zirela XIX. eta XX. mendeetan ere, beregainak, talde eta joeretatik at. Bai eta XXI. mendean ere.

Guztiarekin ere, alderdi literarioaren aldetik, garrantzikoena emaitzen kalitatea eta irakurleen nahiz kritikarien harrera da. Eta alderdi horretatik, sorta honetara bildutakoak adierazpen indar handikoak dira.

Jarraian jasotako poeta hauek guztiekin *Surdimientu* mugimendua indarrean egon bitartean plazaratu dituzte lanak, bakoitzaz

ren jaioturtea gorabehera,urrezko aro berri moduko bat eraturik. Tokian-tokian baina mundua buruan idatziriko berba neurtuak dira, unibertsaltasunari lur eta hizkuntza txiki batetik begiratzen diotenak. Torgak idatzi bezala, “Unibertsala tokian tokikoa da, hormarik gabe”.

## Vanessa Gutiérrez (1980)

### Patria

Sentíte falar con señaldá  
de la tierra que nun tienes,  
de la neñez perdida.

Yo, llonxana,  
como siempre,  
nun acertaba a contestar:  
namás pensaba que, si la patria ye un temblor,  
tu yes muches,  
              muches veces,  
patria mía.

### Aberria

Nostalgjazko berbak entzun nizkizun  
ez dutun lurraren gainean,  
umezaro galduaren gainean.

Nik, urrun,  
betiko moduan,  
ez nuen erantzuten asmatzen:  
buruan erabili besterik ez, aberria ikara bada,  
zu zaitudala, askotan,  
              askotan,  
ene aberri.

## Héctor Pérez Iglesias (1978)

Fuere una llucha  
estraña, torpe, na que'l derrotá fui  
yo pero la que fuxó  
foi ella · el roncu  
reproche del ascensor, interminable, paeció baxala  
a lo más fondo de la nueche.  
Desperté tarde,  
cola lluz abarullao yá  
pel cuartu y revolviéndome incómodu  
na cama: pente les sábanas  
quedaren dalgunes de les sos penques; raspiose  
como les faraguyes d'una cena desolada.

Borroka izan zen  
bitxia, dorpea, hartan garaitua  
neu baina iheslaria  
emakume hora izan baitzen · igogailuaren  
gaitzespen erlatsak, amaigabe, omen zuen  
jaitsarazi/  
gauaren hondorik sakonenera.  
Belu itzarri nintzen,  
argia anabasa hutsa eginda zegoela  
logelatik eta ezerozo jirabiraka jardun duen  
ohean: maindireen artean  
haren orezto batzuk geratuak ziren; lakarrak  
afari desolatu bateko ogi papurren antzera.

## Pablo Texón Castañón (1977)

### Lo mejor de too

Lo mejor de too yera cuando tovía  
yeres quien a llevame  
a xocostrines  
tu l'héroe l'únicu infalible peles  
nueches facíemos un enguedeyu  
de piernes na cama, yeren pá, ma, Diego,  
yera too tan pequeño  
que cabía nuna sábana qué prestoso  
que too sea tan pequeño que nun  
haya más llendes que'l cantu'l colchón  
que nun haya más abellugu que'l to brazu  
que les nuches nunca sean llargues  
nin fríes nin vacies

lo mejor de  
too  
yera cuando  
too  
vera tan cencielo  
como trancar la puerta y nun t'afogar

tantes coses yeren lo mejor de too

### Onik onena

Onik onena zen artean ere  
gauza zinela neu eroateko  
lepoan hartuta  
zu heroia bakarra akasgabea halako  
gauetan mataza bat egiten genuen  
hankekin ohean, baziren aita, ama, Diego,  
hain zen dena txikerra  
non maindire batean kabitzen zen hain atsegina  
dena halako txikerra izatea non ez dagoen  
beste mugarik baizik lastaira bazterra  
beste babesik ez egotea zeure besoa baizen  
gauak inoiz luzeak ez izatea  
ezta hotzak eta hustuak ere

onik  
onena  
zen noiz eta  
dena  
hain zen erraza  
nola atea itxi eta ez norbera ez itotzea

hainbeste gauza ziren onik onenak

## Elías Veiga (1972)

### Teleserie

Esta nueche masturbe'l mio perru  
nes montañes  
pensando en Jenny  
la gocha tetuda de la serie americana.

(La lluz de los clubs  
ente'l fumu de les fàbriques  
y tou esi traficu infinitu  
ensin espaci —ensin fuxida—.  
Los llobos reburdiando cerquina  
mientras la lluna  
llen de rabia roxa de fuerzia  
illumina cada requexu del mio cuerpo solitariu.)

### Telesaila

Bart ene txakurra masturbatu dut  
mendietan  
Jenny gomutan dudala  
telesail amerikarreko urdanga titi-handia.

(Klubetako argia  
lantegietako kearen artean  
eta trafiko infinitu hori guztia  
espaziorik gabe —ihesik gabe—.  
Otsoak uluka hur-hurrean  
iretargiak bien bitartean  
indar gorriko amorruz beterik  
ene gorpu bakartiaren zoko guztiak argiztatzen ditu).

## José Luis Rendueles (1972)

### Cabu Peñes

La lluz decapitada debuxa  
una xeometría nueva  
na llámina marina.

Les ñubes posen el so reflexu  
pa perdelu quién sabe ónde,  
y les gaviluetes faen ecu  
perriba'l cantil  
que se funde na espluma.

Y tu, los tos díes desapaeciendo  
como gotes de lluvia nel mar,  
yes feliz, sentáu na yerba,  
na parte

la tarde  
qu'arde.

### Peñes Iurmuturra

Argi burumoztuak marrazten du  
geometria berri bat  
itsas xaflan.

Hodeiek haien isla pausatzen dute  
auskalo non galtzeko asmoz,  
eta kalatxoriek oihartzun dagite  
labarrean gora  
aparrarekin bat eginda.

Eta zu, zeure egunak aienatzen  
euri tantak itsasoan legez,  
zoriontsua zara, belarretan jesarrita,  
sugarturiko

arratsaldearen  
aldean.

## Martín López-Vega (1975)

### Tu y yo con Safo

Tumbaos na yerba, ente les ruines  
d'un vieyu conventu, el branu  
enrédasenos nel pelu, y el golor  
del branu nos nuesos cuerpos,  
y el sabor del branu nes nueses boques,  
y la lluz den branu nes lluminoses,  
fragmentaries palabres  
que llees en vox baxa, cuais xuxuries.  
*Vinisti, yo te quería,*  
y *xelaste'l mio corazón*  
*encesu de deséu.*  
Dexa de leer. Vuélvete. Dame la to boca.  
La to voz repite les sílabes quebraes  
de la nuesa tierra amiga griega  
y la to voz avérase a mí como un páxaru s'avera.  
pol desnudu cielu del branu.  
Tengo una cosa que dicite  
y *nun me dexa la vergoña,*  
recites col to acentu que me lleva  
a les Rambles, al calor d'otru branu.  
Dexa de leer. Dame la to boca.  
Nun necesito más pa tenelo too.

### Zu eta biok Saforekin

Belartzan etzanda, komentu zahar bateko  
aurrien artean, uda  
ileetan nahastu zitzagun, eta udaren  
usaina gure soinetan,  
eta udaren zaporea gure ahoetan,  
eta udaren klartasuna argizko,  
zatizko hitzetan  
ahots apalez irakurtzen baitituzu, ia xuxurlaka.  
*Etorri zinen, nik maite zintudan,*  
*eta bihotza jelatu zenidan*  
*desioz garretan nuelarki.*  
Utzi leitzeari. Jira zaitez. Emadazu zeure ahoa.  
Zure ahotsak errepikatzen ditu  
gure adiskide greziar maitagarriaren silaba hautsiak  
eta zure ahotsa alderatzeten zait txoria alderatu legez.  
udako zero biluzitik.  
Badut gauza bat zuri esateko  
eta *lotsak ez dit uzten,*  
errexitatzen duzu zeure hoskera horrekin  
Rambletara naroala, beste uda bateko berora.  
Utzi leitzeari. Emadazu zeure ahoa.  
Ez dut besterik behar den-dena edukitzeko.

## Xandru Fernández (1970)

### Täsfärnät

Nun sé qué yes. Nun tas. Nun yes tovía  
un nome nun papel, pero vives. Respiras  
al otro llau del mundu nun mar de suaños verdes  
(los míos) y repites  
les primeres nociones d'un mundu priváu  
nun idioma que nun soi pa pronunciar.  
¿Con qué fe protexete? ¿Cómo voi invocar  
a nengún poder muerto que t'abrace y te mime?  
Nun tengo certidumbres que mandate. Nun sé  
receta dala, nenguna convicción puedo enseñate  
que te sirva d'escudu, d'almuhada o de xuguete.  
Yá ves que nin siquiera soi quien a date un nome.  
Deprendo na to llingua la esperanza.

### Täsfärnät

Ez dakit zer zaren. Ez zaude. Oraindik ez zara  
izen bat paperean, baina bizi zara. Hats egiten duzu  
munduaz bestaldean amets orlegizko itsaso batean  
(neureak) eta errepikatzen dituzu  
mundu pribatu bateko lehen nozioak  
ahoskatzeo gauza ez naizen hizkuntza batean.  
Zein fedez babestuko zaitut? Nola atotsiko diot  
besarkatuko eta mimatuko zaituen botere zendu bat?  
Ez dut zuri bidaltzeko uste sendorik. Ez dakit  
ezelako errezeratarik, ezin dizut inolako konbikziorik  
irakastsi/  
ezkutu, burko edo jostailutzat erabil dezakezunik.  
Ikusten duzunez, ez naiz nor zu izendatzeko.  
Zure hizkuntzan ikasten dut esperantza.

## Xuan Bello (1965)

### Cabu Vidíu (Cuideiru)

Crez y danza'l mar, entrega'l so cuerpu  
d'espluma y distancia a les llábanes  
del mio cuerpo. Yo vi zarpar prietas naves  
dica l'ausencia prieta. Yo suañé contigo  
na tierra sálabre los palacios blancos,  
les estrelles nueves, el rumbu esactu  
de la belleza. Vivir vive en min, ai,  
el corazón de los marineros muertos  
nel so viaxe. El desierto entrevistu  
por mio buelu en Dakar. La señaldá  
d'una carta qu'hube mandar.  
Conozo un cai nel que tuvi solu y  
sé lo que duel l'esterréu y ser de niundes.  
El mar. El mar. El mar.  
Imaxe escucada nun atlas de la infancia.  
El piélagu blau del to vientre, el run  
de la piel cuando deseo. Isles de lluz  
apruciendo no escuro. La flor azul  
de l'aventura y aquello que yo más amo.

### Vidíu Iurmutterra (Cuideiru)

Goraka eta dantzari itsasoa, ematen dio gorputz  
aparrezko eta urruntasunezkoa ene gorputzaren  
harkaitzei. Itsasoratzen ikusi nituen ontzi beltzak  
ez beltzerantz. Zurekin amestu nituen  
lur elkorrean jauregi zuriak,  
izar berriak, edertasunaren  
norabide zehatza. Bizi nigan da bizi, ai,  
haien bidaian hildako  
marinelen bihotza. Basamortu  
ene aitonak Dakarren erdi ikusia. Nostalgia  
bidali beharrean egon nintzen gutunarena.  
Ezagutzen dut bakarrík egon nintzeneko kai bat eta  
badakit ze mintsu diren erbestea eta inongoa ez izatea.  
Itsasoa. Itsasoa. Itsasoa.  
Umezaroko atlas batean ikuskaturiko irudia.  
Zeure sableko atseden urdina, larruaren  
biribila desioz naizenean. Argizko uharteak  
iluntasunean nabarmen. Menturaren  
lore urdina eta nik maiteen dudana.

## Xulio Viejo Fernández (1968)

### Poética

Pongo en tendal de mio casa  
estes inciertes y abúliques palabres  
quiciabes porque'l viento  
azul y vieyu del olvidu  
les ximielgue y les ensugue  
col llinguaxe qu'afalaga, a modo,  
les fueyes nes viesques  
amaes de la lluvia.  
Será fácil robales, quedaréme  
en llar, viendo'l tiempu  
dilise ente verdaes enceses;  
na ventana, disimulada  
polos reflexos del mundu nel cristal,  
la sombra sola d'una voz  
non será a curiar de la so dote.

### Poetika

Etxeko esekilekuan jarri ditut  
hitz zalantzati eta abuliko hauek  
apika ahanzturen haize  
urdin eta zaharrak  
astin eta lehor ditzan  
euriak maitaturiko  
basoetako orriak  
astiro laztantzen dituen mintzoaz.  
Erraza izango da lapurtzea, geldituko naiz  
sutondoan, ikusten denbora nola  
urtzen den egia sutsuen artean;  
leihoa, disimulatua  
munduak kristalean eragindako islen artean,  
ahots baten itzal bakartia  
ez da gauza izango zaintzeko bere dotea.

## Xuan Santori Vázquez (1968)

### Arte poética

Quixerala pa min, fácil  
como'l llapiz breve del carpinteru  
qu'enseña cuando, pa la oración  
la horizontalidá perfecta;  
cuando, el puntu onde furar  
les muries cola palabra.

### Arte poetikoa

Enetzat nahi nuke, erraza  
arotzaren lapitz laburra legez,  
erakusten duela, batzuetan, esaldirako  
horizontaltasun perfektua;  
besteetan, zein puntutan zulatu  
murrak berbareni bitartez.

## Xabiero Cayarga (1967)

### Lo difícil nun ye volver

Lo difícil nun ye volver.  
Lo imposible yera volver  
y atopar intactos: ríos, viesques,  
llagos, ciudaes. Lo qu'ente los dos  
milagroso construía la mirada.

### Gaitza ez da itzultzea

Gaitza ez da itzultzea.  
Ezinezkoa zen itzultzea  
eta ukigabe topatzea: ibaiak, basoak,  
lakuak, hiriak. Bion artean  
mirakulutsu begikaldiak eraikitzen zuena.

## Pablo Antón Marín Estrada (1966)

**Señaldá**

Les manes de la tierra  
nun caricien, nacieron  
pa escacer lo que toquen.

El piel de la rosada  
esfaise na mano  
que lu acaricia  
y el que caricia  
la ñeve toca  
la mano d'un muerto.

L'agua del ríu  
nun caricia los xaoyos  
desnudos, nun siente  
respigase al pie  
que se funde nella.

El corazón de la tierra  
nun cute cuando marches,  
nun tembla  
el pechu de la tierra  
cuando vuelves.

**Pena**

Lurraren eskuek  
ez dute laztan egiten, sortuak dira  
ukitzen dutena ahazteko.

Ihintzaren azala  
urtzen da hura  
laztantzen duen eskuan  
eta egiten dionak laztan  
elurrari ukitzen du  
hildako baten eskua.

Ibaiko urak  
ez ditu laztantzen izter  
biluziak, ez du sentitzen  
beragan urtzen den  
oinaren ikara.

Lurraren bihotza  
ez da hunkitzen zu joatean,  
ez du egiten dar-dar  
lurraren bularrak  
zu itzultzean.

## Marta Mori (1965)

**El rayu**

Igual que'l rayu  
doráu y tebiu  
qu'altraviesa la persiana del mio cuartu  
viniendo a clavase  
nel mio pechu adormecíu  
salva y eleva  
la mañana fría del inviernu,  
asina  
los tos güeyos  
de xana  
calecieron esti día  
el mio corazón estremecíu.

**Izpia**

Nola izpi  
urreztatu eta epelak  
nire logelako pertsiana zehartuta  
ene bular lokartuan  
josirik geratzen datorrela  
salbatzen eta goratzen duen  
neguko goiz hotza,  
hala  
zure lamia  
begi horiek  
epeldu dute egun honetan  
ene bihotz dardarikatua.

## Xilberto Llano (1965)

### Tánger

Tánger ye lluz  
de mar na qu'engastaña'l recuerdo;  
pudiese ser del to cuerpu'l blancor del sol  
y de la memoria esti camín  
u l'adelfa, pétalu del to llabiu, muerre.

Tánger ye lluz  
de duna baxo'l tiempu,  
d'amor que me ñegues  
adulces.

### Tanger

Tanger da  
gomuta zauritzen duen itsas argizkoa;  
zeure soinarena izan liteke eguzkiaren zuria  
eta orioimenarena bide hau  
non heriotzorra, zure ezpaina petaloa, hiltzen den.  
Tanger da argi  
dunazkoa denboraren azpian,  
astiro  
ukatzen didazun amodiozkoa.

## Chechu García (1970)

### Esqueles

Punxeron dos esqueles  
nel palu de la lluz.

Nadie vino a quitaless.

L'agua  
esborronó les lletres  
tarazó los nomes  
y abrasió'l papel.

Cayeron enbaxo.

Queden  
les chinches  
mordiendo la madera,  
silencioses lápides  
nel escuru corazón de la memoria.

Chinches.  
Arrancáronles pa fin d'añu.

Qué poco costó.

Valíen —dixerón— pa poner  
los cartelos del baile.

Chinches.  
Silencioses lápides.  
Clavarónles a martiellu  
cola enraxonada fuerza  
de la mocedá.

Mancaben.  
Mancaben metíes tan fondes.  
Pero nin una llárima saltó  
del secu palu de la lluz.

### Eskelak

Bi eskela inkatu zitzutzen  
argi mastan.

Inor ez zen etorri kentzera.

Urak  
letrak zituen ezabatu  
izenak zatitu  
eta papera kiskaldu.

Behera joan ziren.

Geratu dira  
txintxetak  
zurari ausikika,  
hilarri isilik  
gomutapenaren bihotz ilunean.

Txintxetak.  
Urte amaierarako kendu zitzutzen.

Nekerik gabe.

Balio dute —esan zuten— jartzeko  
dantzaldiko kartelak.

Txintxetak.  
Hilarri isilik.  
Mailuz iltzeztatu zitzutzen  
gaztetasunaren  
indar aberetuaz.

Mingariak ziren.  
Mingariak ziren hain sakon sartuta.  
Baina malko bat bera ere ez zen isuri  
argi masta lehorretik.

## Aurelio González Ovies (1964)

**Aquellos Nochebuenes**

¡Qué nos faltaba entós...!

Sabíamos esperar. Creíamos en too  
cola escusa de nada. Hores  
llargues, silenciu nos caminos, les cunetes  
xelaes, les ventanes enceses  
y motes d'algodón sobre aquel pinu  
y aquelles bombillines  
que, cada poco tiempo, fundíennos los plomos.  
Al menos por un día cenábamos más tarde  
y toos xuntos  
como aquelles families de los llibros.

Despues de tantos años  
—mui fiel ye la memoria...—,  
paezme que te veo posar sobre la mesa  
cachucos de turrón y unos piñones  
—tu tabes toa contenta—  
como si foral —yera— nuese gran tesoru.

**Gabon gau haiet**

Zer falta genuen orduan...!

Bagenekien itxaroten. Dena sinesten genuen  
ezereza aitzaki. Ordu  
luzeak, isiltasuna bidean, arekak  
izoztuta, lehiak pizturik  
eta kotoi izpiak pinu haren gainean  
eta bonbillatxo haiet  
plomuak, aldian-aldian, erretzen zizkigutuenak.  
Gutxienez egun batez beluago afaltzen genuen  
eta denok elkarrekin  
liburuetako sendi haiet legetxe.

Hainbeste urteren ostean  
—fidela da oso gomuta...—,  
iruditzen zait ikusten zaitudala mahai gainean jartzen  
turroi zatitxoak eta pinoi batzuk  
—pozarren zeunden, ama—  
balira bezala —halaxe ziren— gure altxor handia.

## Berta Piñán (1964)

**In memoriam**

Vienes a mí. Conoces los requexos toos  
de la casa, la plenitú del aire cuando l'hibiernu  
aporta y quedámonos solos los que solos llegamos.  
De qué extraña provincia, de qué absurda estación  
de cenices y lluvia vienes a mi esta nueche,  
si la muerte, dicen, non algama más allá  
de la muerte. Al par mío miedres colos años perdios,  
esos años que'l tiempu nos traiciona y nos niega  
y una nueche, esta nueche, regreses,  
y das vida a la vida,  
tú, que namás sabes de la vida la muerte.

**In memoriam**

Nigana zatoz. Txoko guztiak dituzu ezagun  
etxeán, airearen betetasuna neguak  
asaltoa egin eta bakarrik etorritakoak bakarrik  
geratzen garenean./  
Zein probintzia bitxitatik, zein errauts eta eurizko  
geltoki absurdutatik zatoz nigana gau honetan,  
herioa, diotenez, harantzago ez badoa  
heriotik baino. Ene alboan hazten zara galduetako  
urteekin batera,/ denborak traditzen eta ukatzen dizkigun urte horiek  
eta gau batez, gau honetan, itzultzen zara,  
eta bizia diozu ematen biziari,  
zuk, bizitzatik heriotza baino ez dakizun horrek.

## Humberto Gonzali (1961)

### **Patria**

Patria; patria mía  
con granible votu acepto  
el sangre vieyo y el luto de la tierra.  
Pero pídote, ensin tregua  
y con desesperu, como pide a la madre  
el guaje de llantu enllenu:  
acueyi la mio palabra como fueya de carbayu  
pel aire desprendida;  
la que ye sola, na solitú amarga de l'Asturies perdida.

### **Aberria**

Aberri hori; ene aberria  
zin emankorrez ditut onartzen  
odol zaharra eta luraren lutoa.  
Baina eskatzen dizut, tregarrik gabe  
eta desesperoz, amari eskatu legez  
umeak bete negarrez:  
onartu ene hitza haritz hosto  
haizeak askatuaren antzera;  
bakana dena, Asturias galdurik bakartasun garratzean.

## Lluis Fano (1961)

### **Nun hai paz**

*A una xeneración*

Hai xente abondo que fala  
de cuando la guerra,  
d'un tiempo qu'hebo guerra  
y pasáron-yos coses  
y alcuérdense señardosos  
y quieren siempre cuntas.  
Pero nun oigo falar  
de cuando la paz.  
¿Nun hebo paz?  
si la hebo ¿nun s'alcuerden?  
si s'alcuerden ¿nun s'atreven?  
o a lo peor:  
alcuérdense, atrevéñse  
y claro qu'hebo paz  
pero... ai... nun-yos pasó nada.

### **Ez da bakerik**

*Belaunaldi bati*

Jende askok mintzagai darabil  
gerra sasoia,  
gerra izan  
eta gauzak gertatu zitzazkieneko denbora  
eta nostalgiaz dakartzate gomutara  
eta beti azaldu gura izaten dituzte.  
Baina ez diot jendeari berbetan entzuten  
bake garaiaz.  
Ez ote zen bakerik izan?  
edo izan bazen, ez dira gomutatzen?  
edo gomutan badute, ez dira ausartzen?  
edo txarrenean:  
gomutan dute, azartu egiten dira  
eta jakina bakea izan zena  
baina... ai... ez zitzaien ezer jazo.

## Ignaciu Llope (1961)

**De vuelta del mar**

Presta saber del mar  
nos escuros díes del regresu  
nesta patria de cobardes.

Presta saber de los amantes  
que se dexen recordar  
na erma temperatura  
de los cuerpos ayenos.

**Itsasotik bueltan**

Atsegin da itsasoaren albiste izatea  
itzuleraren egun ilunetan  
koldarren aberri honetan.

Atsegin da maitaleen albiste izatea  
gomutagai erabil dezatela uzten baitute  
inoren soinen  
temperatura mortuan.

## Xosé Antonio García (1961)

**XXVI**

Fala l'aire enceso  
y l'alma de dolor apagada.  
Infinito ye l'alimendu  
que-yos queda a los homes y a los llimiagos.

**XXVI**

Hitz dagi aire izekiak  
eta minak itzaliriko arimak.  
Elaikagai ifinitua da  
gizakiei eta bareei geratzen zaiena.

## Miguel Allende (1960)

**Payasu comodín (mp3)**

*Cause I'm a picker  
I'm a grinner  
I'm a lover  
And I'm a sinner  
I play my music in the sun  
I'm a joker  
I'm a smoker  
I'm a midnight tocker  
I sure don't want to hurt no one.*

*The Jocker*, Steve Miller Band

Después de ser tantes coses  
alcuéntrome non anuncio de cerveza  
sin ser el ciego de Buenos Aires qu'escribió *El Aleph*  
o l'asturianu de Pría que cantaba *La Raitana*.

**Pailazo komodina (mp3)**

*Cause' I'm a picker  
I'm a grinner  
I'm a lover  
And I'm a sinner  
I play my music in the sun  
I'm a joker  
I'm a smoker  
I'm a midnight tocker  
I sure don't want to hurt no one.*

*The Jocker*, Steve Miller Band

Hainbeste gauza izan ondoren  
garagardo iragarki batean nago  
izan barik *El Aleph* idatzi zuen Buenos Aireseko itsua  
edo *La Raitana* kantatzen zuen Príako asturiarra.

## Lourdes Álvarez (1961)

### Palabres

Ámovos palabres xiblu que me peslláis los llabios;  
palabres ensin decir  
que'asomais a los güeyos delles veces  
y en madexes d'agua espardeis la murnia y l'orpín  
y el color allunáu, encasu en toles nueches.  
Ámovos entós, a la escontra'l silenciu, dientro de mi  
porque sois tolos soles que me faen falta ver  
curiando de les tardes.  
Palabres lares de mio casa,  
rellumos marxiniales que recoyéis la voz  
nel fríu de los iviernos, palabres ensin decir,  
palabres caltenfes na mio llingua: ámovos.

### Berbak

Maite zaituztet, ezpainak ixten dizkidazuen txistu berbak;  
esan gabeko hitzak  
batzuetan begietara agertu  
eta ur matazeten banatzen baitituzue pena eta langarra  
eta iretargi kolorea, gauero isiotua.  
Orduan maite zaituztet, isilaren aurka,ene baitan  
ikusi behar ditudan eguzki guztiak zaretelako  
arratsaldeez arduratuta.  
Gure etxeko ele garbiak,  
neguetako hotzean ahotsa jasotzen duzuen  
dirdira marjinalak, esan gabeko hitzak,  
ene hizkuntzan gordetako berbak: maite zaituztet.

## Esther Prieto (1960)

### De la casa del padre

Pesllada la puerta, echaos el cuarterón y los  
postigos dexé la casa, por si un día vuelvo.  
Caltengo nel envés de la memoria caminos  
y cayeles de champán y d'escuela: imprecisa  
cartografía del vencíu.  
De la casa del padre salí travesando  
los más altos puertos de piedra, y salté sebes  
y esguilé árboles de frutes dulces y amargues.  
De la casa del padre llegué hasta esti día  
como zrezu xaponés que nada guarda  
y mira pal suelu, de revés, plasmáu y sordu.

### Aitaren etxetik

Atea itxita, trabaturik kontraleihoa eta  
leihatilik irten nuen etxetik, noizbait etor banendi.  
Oroimenaren atzealdean gordeta bideak  
eta buztin eta eskola kalexkak: bentzituaren  
kartografia gandutua.  
Aitaren etxetik irten nuen zeharkatuz  
harrizko aterik garaienak, eta zuhaiuskak saltatu nituen  
eta igali goxo eta garrazdun arboletarra igo.  
Aitaren etxetik egun honetara arte heldu nintzen  
gerezzi japoniarren antzera, ezer gorde barik  
eta lurriari begira dagoena, azpialdez, zurtuta eta gor.

## Antón García (1960)

**La casa del mío padre**

Nire aitaren etxea  
defendituko dut.

Gabriel Aresti

*A Xosé Manuel Valdés*

Defendería  
la casa de mi padre  
contra los llobos  
contra la xusticia  
contra la usura.  
Perdería  
la facienda  
y el monte si pudiera  
defendiendo la casa de mi padre  
coles manes  
(que más arma  
nun tengo que la pluma).  
En quitándome les manes,  
colos brazos,  
col sangre  
y cola vida  
defendería la casa de mi padre.  
Y morrería,  
perdería l'alma  
perdería'l mio fruxe  
pero de pies  
la casa de mi padre  
siguiría.  
Defendería  
la casa de mi padre  
anque fuera  
una casa-barata  
fecha con usura,  
una colomina  
qu'un chamizu ha argayar.

Defendería  
la casa de mi padre  
de nun ser  
que padre la vendió  
pa que yo fuera  
dalgo pela vida.

**Nire aitaren etxea**

Nire aitaren etxea  
defendituko dut.

Gabriel Aresti

*Xosé Manuel Valdési*

Nire aitaren etxea  
defendituko nuke  
otsoen kontra  
justiziaren kontra  
lukurrerriaren kontra.  
Galduko nuke  
azienda  
eta mendia ahal izanez gero  
aitaren etxea defendatzen  
eskuekin  
(beste armariak ez dut  
luma baino).  
Eskuak ebakitzen badizkidate,  
besoekin,  
odolarekin  
eta bizitzarekin  
defendituko nuke neure aitaren etxea.  
Ni hilien nintzateke,  
arima galduko nuke,  
neure leinua galduko nuke,  
baina zutik  
nire aitaren etxeak  
iraunen luke.  
Nire aitaren etxea  
defendituko nuke  
baldin balitz ere  
lukurreriaz eginko  
etxe merke bat,  
babes ofizialeko etxebizitza bat  
meategiak azkenean arrakalatu beharrekoa.

Defendituko nuke  
nire aitaren etxea  
ez balu  
aitak saldu  
izan nendin ni  
zerbait bizitzan.

Luis Salas Riaño (1960)

**Como si fuere Verlaine**

El que torna d'un viaxe yá ye otru.  
El tiempu (siempre pasa) nada dexa  
igual. El besu atávico, l'abrazu,  
el sorbu abovedáu de los tos llabios  
na mio carne más trémula, los brotos  
inflamaos, el medallón sombríu,  
los dos vientres que se saciaron mientres  
la nueche consumía la abrasada  
realidá; malapenes son escories  
espardíes nel remolín de sábanas  
que l'olvidu nun acaba matar.  
Equí dentro relluma una llapada  
y nel güecu vacíu retumba un ecu,  
*c'était le coeur de mon douce cousin.*

**Verlaine banintz bezala**

Bidaiatik datorrena beste bat da dagoeneko.  
Denborak (beti iragankor) ezer ez du uzten  
berdin. Musu atabikoa, besarkada,  
zure ezpainen urrupada bobedadunak  
nire haragirk dardaratsuenean, kimu  
hanpatuak, medailoi itzaltsua,  
sabelaldeek elkar ase zuten  
gauak erretzen zuelarik kiskalitako  
errealitatea; guziak ozta-ozta dira eskoria  
maindireen zurrubilitik sakabanatuak  
ahanzturak amatatzerik lortzen ez dituenak.  
Hemen barruan argi dagi sugar batek  
eta tarte hustuan burrunba oihartzun batek,  
*c'était le coeur de mon douce cousin.*

Ánxel Álvarez Llano (1958)

**XXI**

Si equí fina'l viaxe, a deshora,  
será un trayeuta averáu al olvidu  
y a cualquier suañu fráxil,  
como una música que naciere  
nes fries cuerdes d'un vigulín  
ensin alma, ensin fuebu nel corazón  
de les notes, afuegu sópitu  
nel atril xelaú de la orquesta.

**XXI**

Hemen amaitzen bada bidaia, desorduan,  
ibilgua hurbil izanen da ahanzturatik  
eta ezein amets apukorretatik,  
nola sortzen den musika  
biolinaren hari hotzetan  
arimarak gabe, surik gabe noten  
bihotzean, itomen supitura  
orquestraren atril izoztuan.

Teresa Fernández Lorences (1955)

**Rellumu**

Volvió la cabeza y ximió una nube  
ellí onde'l so pelo cabruñara  
el metal que los homes acobician.

**Oinaztargia**

Burua biratu eta aiene egin zuen hodei batek  
non eta haren ileak ukitu baitzuen  
gizakiek irrika duten metala.

## Miguel Rojo (1957)

Aú tán los díes perdíos.  
Aquellos de flor y flor  
como un collar  
alrior del mío pescuezo  
a la manu de l'amada ensortiyaos.  
Aú se fonon aquellos díes  
xuguetes relagaos a mamplén  
que dexé dise ensin despedime  
comu se despide la novia na estación  
anantes que'l tren esapaeza  
definitivamente  
na negrura'l túnel.  
Aú tan los díes tiraos.  
Aquellos de flor y flor  
aú tán.

Non dira egun galduak.  
Lore-loreko haiek  
iduneko baten antzera  
ene lepoaren inguruan  
laztanaren eskuari kiribilduak.  
Nora joan ziren egun haiek  
esku biok betean oparituriko jostailuak  
agurtu gabe joaten utziak  
andregaiia geltokian agurtu legetxe  
trena desagertu baino lehen  
behin betiko  
tunelaren beltzean.  
Non dira egun boteak.  
Lore-loreko haiek  
non dira.

## Roberto González-Quevedo González (1953)

### La mia cabana

Por fin toi solu.  
Marchanon los amigos.  
Enxamás tornarán yá  
las esperanzas d'antias.  
Enxamás los güechos  
amirarán las mesmas couosas.  
Marchanon los amigos.  
¡Que marchen con buen púa!  
Yá nun son los mieos amigos.  
Son sacaberas murnias.  
Son androidos d'outuen.  
Pero la mia cabana  
dexoú la puerta abierta  
pa los amigos nuevos.

### Ene etxola

Azkenean bakarrik nago.  
Joanak dira adiskideak.  
Sekulan ez dira ja itzuliko  
antzinako itxaroak.  
Sekulan ez diete begiek  
lehengo gauzei so egingo.  
Joanak dira adiskideak.  
Doazela pausaje onean!  
Dagoeneko ez dira ene lagunak.  
Uhandre tristea dira.  
Udagoieneko aratustea.  
Baina ene etxolak  
atea zabalik utzi zuen  
adiskide berrientzat.

María Teresa González (1950-1995)

### **Qué pensará la mar**

Qué pensará la mar  
cuandu dispierte,  
ocle na piel,  
l'alborecer abriéndose al iris soñolientu,  
y nel profundu vientre, como un nenu,  
cañicándose un besu, que posara los llabios de setiembre.

## Itsasoak zer pentsatuko

Itsasoak zer pentsatuko  
itzartzen denean,  
itsas belarra larruan,  
egunabarra iris lokartura zabaltzen dela,  
eta sabel sakonean, ume baten antzera,  
zabuka musu bat, irailaren ezpaineik pausatua.

Xuan Xosé Sánchez Vicente (1949)

## Venus desurde de la mar d'Asturias

Na trespariente mar que te rodea  
esparde las guedeyes brisa verde,  
velando y desvelando la desnuda  
nidiura de melcotón na que'envuelves  
el suañ de pumares los tos pechos,  
el tebiu y suave acapiu del to viento,  
l'apellidu infantil del embeligrú,  
l'enriscáu oquín qu'a la puerte duerme  
del to puertu (abellugu y destín  
de sueños y de barcos y de velees);  
el curvu castru de los tos cadriles  
qu'en curtiu istmu la cintura vuelve,  
la torniada pierna que na rodía  
encarna y n'axil músculu pierde  
la cofrana, p'aportar a les playes  
onde'l tiempu dexó conches y venes  
que carcien les foles al romper.  
Y brisa, y mar y yo, tresparientes  
mendigos de la gracia del to cuerpu.

#### **Venus Asturiasko itsasotik sortzen**

Inguratzen zaituen itsas gardenean  
ileak hedatzen ditu brisa orlegiak,  
estaltzen eta agertzen  
muxika azal biluzia, darabilzuna  
biltzeko zeure bularren sagar ametsa,  
zure sabelaren erakarmen epel eta emea,  
zilborraren ume deitura,  
goroldio kiribildu lokartua zure  
kaiko atean (babes eta jomuga  
ametsena, barkuena eta irrikena);  
zure aldaketako kastro biribildua.  
istmo laburrean gerria itzulika,  
tornuz eginiko zangoak belaunean  
haragituta muskulu arinean du galtzen  
belaunpea, heltzeko hondartzetara  
non denborak utzi zituen maskor eta bitxi  
uhinek lehertzean lazlanduak.  
Eta brisa, eta itsasoa eta ni, gardenak  
zure gorputzaren graziaren eskale.

Xosé Manuel Valdés (1948)

Voces

Na primavera tamién retueyen voces.  
Son como caparines que furen la ventana  
fuxentes,  
verdes,  
cabántenes salir  
d'un inviernu perfondu.

Ahotsak

Udaberrian ahotsak ere dira ernetzen.  
Leihotik sarturiko mitxoleten antzekoak dira  
iheskorrak,  
orlegiak,  
irten berri balira bezala  
negrak batetik.

Une batez, itxaro duzu  
batek zure izena esatea.  
Gero berdin dizu:  
inork ez du jabetzan  
udaberriak denoi emanikoa.

Céltica

A ti, Vaethu, que vives xunto la mar,  
y a ti, Caraedubis, que remanes el ñuberu y la fontana.  
A vosotros, Lugas y Vagodonnaegu,  
que'l fumu aventáis y el ruxir de las fogueres,  
y a ti Aernu folixeru, que'escuerres al vecín enemigu  
y xintes y bailles cola tribu zoela  
y la bona xente.  
Pente les foles y bardiales blinquen busgosos y sumicios,  
y peináse curiosa una xana cuandu escampla.  
Encesa llume ye la tarde  
mentes arroxen ente cancios,  
lloñe,  
los cumales de los montes  
y la tiesta los carbayos.  
Rouxu llumeral, entós, el mundu.  
Mures, llagartos y cuquiellos  
que'entainen con medrana al so furacu.  
Rellúmen-y los güeyos al raposo, a la curuxa  
y al dios mesmu, que'l llombu, atristayáu,  
escuende.  
Seliquino, siéntese un orbayu.

Zeltikoa

Zuri, Vaethu, itsasoaren ondoan bizi zaren horri,  
eta zuri, Caraedubis, hodeia eta iturria astintzen dituzunari.  
Zuei, Lugus eta Vagodonnaegu,  
kea eta sutzarraren orroa aienatzen dituzuenei,  
eta zuri Aernu jostariari, alboko etsaiaren atzetik zoazenari  
eta jaten eta dantza egiten duzunari leinu zoelatarrarekin  
eta jende onarekin.  
Uhin eta sastraka artean jauzika satiroak eta prakagorriak,  
eta orrazten da lamia txukun bat atertzen duenean.  
Argi izekia da arratsa  
kantuen artean gorritzen diren bitartean,  
urrun,  
mendi kaskoak  
eta haritzen burua.  
Sute gorria, orduan, mundua.  
Sagu, musker eta kuku  
arineketan beldurrez bakoitzera zulora.  
Begi dirdiratsuak lukiak, hontzak  
eta Jainkoak berak, bizkarra, goibel,  
ezkutatzeten duela.  
Emeki, zirimiria aditzen da.

Manuel Asur (1947)

**Poeta**

Ser poeta ye vivir fuera'l papel  
y tener mal de lletra,  
sola ver siempre la misma silueta,  
sentir qu'ende fuera  
pasa la vida'n mejor ferramienta;  
atender la mar debaxo'l poema,  
y nun ser barcu nin airín de vela,  
nín saber muy bien lo que se cellebra.  
Ser poeta ye una campana que riela  
na melguera voz d'escosa sirena,  
muelle baldáu, rede ensin mella,  
día tardiegu, nuechi indiscreta.

**Poeta**

Poeta izatea da paperetik at bizitza  
eta letra minak jota egotea,  
bakarrik beti silueta bera ikustea,  
sentitzea hor kanpoan  
bizitza igarotzen dela tresna hobean;  
itsasoa poemaren azpian entzutea,  
eta ez izatea itsasontzirik ezta bela haizerik ere,  
ezta oso ondo jakitea ere zer ospatzan den.  
Poeta izatea ñir-ñir dagien kanpaia izatea da  
sirena antzuren baten ahots eztian,  
moila ezgauza, hutsunerik gabeko sarea,  
egun berantiarra, gau indiskretua.

Xosé Manuel Bolado (1946)

**Queríamos vivir**

A la lluz escasa de los vencíos  
semabes grana de cosmos en marzu.

Yo conocía  
de marzu la infinitú del agua,  
la fidelidá del aire a los barcos  
de travesía, la blancura violeta  
del Aramo... Tu, sabíes de la muerte,  
el so roce de pluma.

Los dos  
queríamos vivir.

**Nahi genuen bizi**

Menderatuen argi urrian  
kosmos hazia ereiten zenuen martxoan.

Nik banuen ezagun  
martxotik uraren infinitutasuna,  
zeharbide barkuei  
aireak dien fideltasuna, Aramoko  
zuritasun bioleta... Zuk, heriotzaren jakitun,  
haren luma igurtzia.

Biok  
nahi genuen bizi.

## Nel Amaro (1946)

**Declaración de principios***Pa Oski S.*

Un home fala n'inglés  
(esi home ye'l mio hermano).

Otru home fala n'asturianu  
(ye'l mio enemigu).

El primer home ye un mineru  
(norteamericano).

El segundu home ye un patronu  
(asturiano).

La llingua tampocu nun nos  
fai siempre hermanos.

**Hastapen adierazpena***Oski S.-rentzat*

Gizaki bat ingelesez da mintzo  
(gizakume horiene haurridera da).

Beste gizaki bat asturieraz da mintzo  
(ene etsaia da).

Lehen gizakia meatzaria da  
(iparramerikarra).

Bigarren gizakia patroia da  
(asturiarra).

Hizkuntzak ere ez gaitu  
egiten beti senide.

## Pablo Ardisana (1940)

**Chillida**

Pa besate quixerá  
dalgunos güecos cúmplices,  
fechos de pulsu bien tresnáu  
por quien trabaya madera,  
fierru, formigón... namoradamente.  
Alza volúmenes, espacios, xuegos  
de xeometrías sonánbules, onde  
se contien vientos, agües, lluces,  
falampos... y caltién tremos  
quietu d'esquines como sollertes ales.  
Pa besate qeixerá que tuvieses aquí  
con venti años, y que Chillida nos dexara  
les sos manes pa escondenos  
n'esculpíos suaños, mui a soles.

**Txillida**

Zu musukatzeko gura nituzke  
zenbait hutsarte konplize,  
ondo tresnaturiko pultsuz eginak  
nork eta langai darabiltzanak zura,  
burdina, hormigoia... maiteminez.  
Altxatzen ditu bolumen, espacio, joko  
geometria sonanbuluzkoak, non  
gordetzen dituen haizeak, urak, argiak,  
malutak... eta eusten hegal arretatsuen gisara  
izkinen geldotasun dardaratsuari.  
Zuri musu emateko gura zintuzket hemen  
hogei urtekoa, eta Txillidak guri uztea  
bere eskuak biok ezkutatzeko  
amets zizelkatuetan, bakarrik ere bakarrik.

### **En bable**

Se ofrece aquí una pequeña antología de la poesía escrita y publicada en bable, sobre todo durante el periodo denominado *Surdimientu*, acompañada de una breve introducción teórica. Abarca el periodo comprendido entre 1975-2010 y se basa en la antología bilingüe *Toma de tierra* realizada por José Luis Argüelles y publicada por la editorial Trea en 2010. La poesía en bable es una de las más desconocidas en la península ibérica, debido a que la lengua en sí carece de estatus de lengua cooficial en su propia comunidad autónoma.

### **En bable**

Il s'agit d'une brève anthologie de la poésie écrite et publiée en bable, spécialement pendant la période connue sous le nom de *el Surdimientu*, accompagnée d'une brève introduction théorique. Elle couvre la période allant de 1975 à 2010 et se fonde sur l'anthologie bilingue intitulée *Toma de tierra*, publiée par José Luis Argüelles 2010 chez la maison d'édition Trea. Le bable est parlé dans la Principauté des Asturies, mais n'ayant pas le statut de langue co-officielle dans sa propre communauté autonome, sa poésie est l'une des plus méconnues au niveau de la péninsule ibérique.

### **In Bable**

A small anthology of poetry written and published in the Asturian (Spain) dialect, *bable*, primarily during the *Surdimientu* (Renaissance) period, together with a brief theoretical introduction. The work spans the period from 1975 to 2010 and is based on the bilingual anthology *Toma de tierra* [Landing] published by José Luis Argüelles in 2010 with the publishing house Trea. Poetry in bable is largely unknown among the poetic works of the Iberian peninsula because the language has no legal status as a co-official language in its own autonomous community.

